

Borroka herrira ekarri dute

Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboa sortu du lasarteoriatar talde batek; manifestazioa egingo dute hilaren 28an, 20:30ean / 2

Hurrengoa, berezia

Jaiei buruzko bi aldizkari berezi argitaratuko ditu TXINTXARRI-k, hilaren 24an bat eta uztailaren 8an bestea

Rocioko erromeria baliatu du Semblante Andaluzek, 30. urteurrena modu xumean ospatzeko / 7

Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria eta Hernaniko Santiago Perez Lasarte Sarian garaile izan dira / 10

txintxarri

Sanpedrotako zenbaki bereziak ekainaren 24an eta uztailaren 8an

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Deskontu bereziak herrikoentzat!

publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66

2car

uztailaren 30a arte

Continental

16" edo 17" lanta
2 gurpil 4 gurpil
20€ 50€

18" edo handiagoak
2 gurpil 4 gurpil
35€ 80€

Ekipatu zure kotxea Continental gurpilekin eta 80 € bitarteko erregaia eskura dezakezu

Zumaburu 18
Lasarte-Oria
Tel: 943-36 24 63



Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboko kideak, aurkezpen prentsaurrekoan. TXINTXARRI

Eguneroko borroka herrian ikusarazteko

Herritar talde batek LGBTIQ+ kolektiboa osatzen duten pertsonen borroka ikusarazteko eragile bat sortu du: Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboa. Lehen ekintza gisa, manifestazio bat egingo dute hilaren 28an, 20:30ean, Okendo plazatik abiatuta

Txintxarri

Aurtengo sanpedroetan, festa giroak ez ezik, aldarrikapen ekintzek protagonismoa izango dute. Sortu berria den Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboak iragarri du manifestazio bat egingo duela "LGBTIQ+ harrotasuna" gisa ezagutzen den egunean, hilaren 28an, asteartez, 20:30ean, Okendo plazatik hasita. "Azpimarratzekoa da, jaiak direla medio, lehenengo aldia dela gure herrian horrelako mobilizazio bat egiten dela, eta adierazgarria iruditzen zaigu, Lasarte-Oriako borroka honi eman izan zaion garrantziaren isla baita". Horren harira, adierazi dute borroka horrek ez duela "inolako presentziarik izan" gurean, "txosnetan edota udaletxean eskegitako oihal zati batez aparte". Aurreko urteetan Donostian deitutako manifestaziora joan izan dira.

Dinamika horrekin "hautsi", eta aldarrikapenak herrira ekartzea erabaki dute kolektiboko

kideek, "hiriguneetako anonimotasunetik" ateratzea, "deszentralizatzea". Era berean, uste dute garaia dela haien egunerokotasunean bizi duten "ikusezintasunari" eta "era askotako erasoei" lokalki ere aurre egiteko. "Azken 4 urtetan, Euskal Herrian hirukoiztu egin dira salatutako eraso transmaribollofoboak". Azpimarratu dute "gero eta ozenago" entzuten dituztela kolektibo horren kontrako gorroto diskurtsoak: "Ustezko zilegitasun, askatasun eta lasaitasun handiagoraz erasotzen gaituzte".

Iruditzen zaie "ezinbestekoa" dela mezu horiei aurre egitea, "autodefentsa praktikan jarri eta saretzea", baina ez soilik biolentzia

**"IKUSEZINTASUNARI
ETA ERA ASKOTAKO
ERASOEI LOKALKI
ERE AURRE EGITEKO
GARAIA DA"**

hori jasotzen duten pertsonak, bai eta horrelako diskurtsoen aurrean jarrera neutrala adierazten dutenena ere. "Uste dugu hori konplize izatea dela". Horrenbestez, gogorarazi dute borroka ez dela soilik kolektiboko kideena, eta hilaren 28ko manifestaziora gonbidatu dituzte baita ere "transmaribollo bezala euren burua identifikatzen ez duten baina jarrera neutrala izan nahi ez duten horiek".

Harremanetan jartzeko

Lasarteoriatarren batek interesa balu kolektibora batu edo bestelako harremanen bat egiteko, hemengaude@ni.eus helbide elektronikora idazteko eskatu dute kideek.

Herriko festa alternatiboak antolatzen dituen eragileak, Sorgin Jaiak-ek, bat egin du protesta ekintzarekin eta bere egitarauaren barruan sartu du. Bertako kideek ere dei egin diete herritarrei manifestazio horretan parte hartzeko.

Oriartekideek bigarren eskuko ikasliburuen azoka egingo du

Hilaren 21tik 24ra jaso eta salerosiko dute materiala, Oriarte Larrekoetxen. Elkarteko bazkideek lehentasuna izango dute

Txintxarri

Datorren kurtsoako ikasliburuak erosi ahalko dituzte herritarrek laster, Oriartekide guraso elkarteko lagunek egingo duten azokan; DBH 3. mailatik 2. Batxilergora artekoak eskainiko dituzte. Hilaren 21ean materiala jaso, 23an saldu eta 24an jasoko dute dirua, Oriarte Larrekoetxe institutuan. Guraso elkarteko bazkide direnek lehentasuna izango dute.

Esan bezala, liburuak entregatzeko eguna hilaren 21a izango da, asteartea, 16:00etatik 18:00etara. Bi egun geroago erosi ahalko dituzte interesa dutenek, 16:00etatik 18:00etara baita ere, eta dirua 24an eman beharko dute, 16:00etatik 17:30era. Oriarte Larrekoetxe eraikinean egingo dute hori guztia. Azokaren harira, Oriartekideek zenbait ohar kaleratu ditu: guraso elkarteko bazkideek lehentasuna izango dutela azokan; bazkide ez direnek 17:30etik 18:00etara joan ahalko dutela eta 5 euro gehiago ordaindu beharko dituztela liburuak erosteko (saltzen duten bakoitzeko 5 euro gutxiago jasoko dituzte); Ingelesa ikasgaietan *Student Book* delakoa soilik saldu ahalko dela,

eta bertako ariketek ezin dutela eginak egon; ikasliburuek egoera onean egon beharko dutela eta erabiltzeko moduan (guraso elkarteko baloratuko du salgai jartzeko baldintzak betetzen dituen ala ez); bigarren eskuko ikasliburuen salneurria izango dela berrien erdia, gutxi gorabehera; eta dirua emateko egunean jasotzen ez den material edo dirua guraso elkarteko bilduko duela, eta aurkakorik esan ezean, haren ondare bihurtuko dela.

Azken kontzentrazioa

Oriartekideek asteak daramatza eskaera hau egiten: 2022-2023 ikasturtean ere lanaldi jarraituarekin segitzea, azken bi ikasturteetan bezala. Argudiatu du "hobetu" egin dela ikasle, irakasle eta familien bizi kalitatea, jardunaldi trinkoa izatearen eraginez. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak erabaki du jardun zatituta bueltatu behar dutela EAEko institutuek datorren kurtsoan, eta horren aurka ari da protesta egiten. Oriarte Landaberrin bilduko dira gaur, hilak 17, 14:10ean, hogeit bat minutuz.



TXINTXARRI

Jaialdia egin dute Sasoetan

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako irakasle eta ikasleek ikasturtea bukatzeko jaialdia egin zuten hilaren 11n, egun osoz. Egitaraua, hauxe: tailerrak, futbol eta saskibalo partidak, hamaiketakoa, LOKEko kideen judo eta gimnastika erakustaldiak, diploma banaketa, puzgarriak, pottoken gainean ibilaldiak, mini diskoa eta apar festa.



NEURE KABUZ

JULEN BASTERRA

Kaka nahaste baten burrunba

Loratu ziren udaberriaren hasiera iragartzen zuten San Jose loreak. Apirileko elorri zurien loreak maiatzean ere bildu nituen, infusioan hartuta tentsioa erregulatzeko dutela irakurri bainuen Garbiñe Larrearen Sendabelarrek dakitena liburuan. Kalendula laranja ere biltzen ibili naiz, azken hilabetean malbekin batera sekatzeko utzi ditudanak. Kaputxinak ere une honetan polit-politak daude eta entsaladetan lore zein hostoak jan eta jan aritu gara letxuga falta konpentsatzeko.

Baratza polita egin dugu aurten eta uztaila, uztaren hilabetea, bertan dugu ia. Aste beroa dator orain eta bazkalosteko ordu hauek aprobetxatzen ari naiz lerro hauek idazteko.

Nekazaritzarekin eta osasunarekin lotuko dut gaur asuntua. Euli zikinak etxean sartu zaizkigula aprobetxatuz euli gogaikarri baten rola jokatzera nator. Aldez aurretik barkamena eskatuko dizuet, hegaldi desatsegin honekin belarria aztoratzeagatik, baina, euli xamarrek garenontzat iraganeko kaka honek, kaka zahar honek gaur egun osasunaren arloan gertatzen ari den kaka fresko honekin duen antzekotasuna aipatu beharrean aurkitzen naiz.

Iraganetik hasiko naiz, kaka zaharretik: ni ez nintzen bizi garai hartan, 60ko hamarkadan, 70koan, 80koan... 90koa bainaz ni. Alabaina, giroa urte horietan kakaztu zela uste dut, edo agian XVII. mendeko korrante filosofikoen eraginaren ondorio da gaur bizi duguna. Tira, ezingo diogu artikulu labur bati hainbeste zehaztasun eskatu... Kapitalismoaren hazkundera itzela izan zen ni jaio aurretiko garai hartara itzuliko naiz...

Garai hartan, bazirudien, denak zuela gorantz egiteko joera, produktibitateak, soldadak, jendeak eskuratu ahal zituen gailu kopuruak... Gauzak honela, etenik gabeko hazkunde horri eustea posible zela uste izan zuten askotok. Materialismo bortitza, garapen zientifikoa, berrikuntza teknologikoa, gizakia naturatik bereizten duen oinarri filosofikoa... ezaguna zaigu, bai? Ba magma horretan, mentalidade materialista hau nekazaritzan txertatzea ekidin ezina izan zen. Hala, euren fruta eta barazkiak "modu ekologikoan", alegia, naturarekin bat etorritik, ekoizten zituzten baserritarrek, euren produkzioa hobetzeko, handiagotzeko eta hazteko joera kapitalista horrekin bat egin zuten.

Jakina, lurraren erritmoak iada ez ziren garrantzitsuak. Ongarri kimikoekin, herbizida zein pestizidekin eta noski, teknologia berriekin lurrari izugarriko etekina ateratzea egin behar berria zen orain, eta hala jokatzeko ez zuena hutsaren hurrengo zen. Gutxi batzuek soilik eutsi zioten manipulazio mediatiko, politiko eta sozialari. Gaur egun, "nekazaritza ekologikoa"ren barruan kokatzen ditugun baserritarrek dira hauek. Alegia, lurrari lotuak gauden izakiak garelako kontziente izanik, lurraren oreka errespetatzeko mentalidadeari eutsi diotenak. Hauei esker, lurra kimikoki ez medikatzea baizik eta lurra "ekologikoki" ulertzea da gaur egun sozialki "ondo" dagoen produkzio modua.

Bestalde, zer pasatzen ari da gaur osasunarekin, medikamentuekin, eta konkretuki, txertoekin? Bada, gure gorputzaren oreka nolakoa den ulertu gabe arazo puntualei aurre egiteko medikatzen ari garela iraganeko lurra kimikoekin medikatu genuen presa eta ezjakintasun berarekin. Manipulazioaren dinamika antzekoa da, aktoreak antzekoak dira, kakaren usaina ere antzekoa da... manipulatu dutena da aldatu dena: garai bateko lurra gaur, geure gorputz propioa da. Eta bere gorputza kimikoki medikatzen edo txertatzen ez duena da gaur egun hutsaren hurrengo, sozialki "gaizki" egiten duena.

Bukatzeko, galderak airera, etxe barruko eulien burrunbak erotu baino lehen: Gai izango al gara nekazaritzan lurraren oreka ulertzen ari garen bezala geure gorputzaren oreka nolakoa den ulertzeko? Gai izango al gara nekazaritzan kimikoak gutxiagotu ditugun bezala kimikoak ere geure gorputz propioetatik hurrin mantentzeko? Gai izango al gara, benetan, osasuna zer den ulertzeko?

Kaka zahar eta berriak ongarri bihurtzeko esperantzarekin agurtzen da eulitxo hau. Izan ere, kakazturiko giro hauetan, posible al da euli ez izatea? Baratzea ureztatzea joango naiz. Utz ditzagun euli zikinak etxe barruko kaka nahastean...

Hondakinen bilketa arautzeko ordenantza

Adostasun politiko "handia" izan du hondakinak biltzeko sistema arautuko duen ordenantzak; udalbatzarreko alderdi guztiek bat egin eta akordioa lortu dute. Helburu nagusia da gutxienez %60ko birziklatze tasa lortzea

Txintxarri

Udalbatzarreko alderdi guztiek bat egin dute etxeko eta merkataritzako hondakinak biltzeko sistema arautuko duen ordenantzarekin eta behin betiko onartuta geratu da. Hala jakinarazi zuten PSE-EE, EH Bildu, EAJ eta ELOP alderdietako ordezkariak hilaren 15ean, prentsaurrean. Hain zuzen ere hori nabarmendu nahi izan zuen Agustin Valdivia alkateak, alderdi politiko guztien lanari esker lortu dela onarpena. Akordioak Lasarte-Oriako hondakinen birziklatze tasa hobetzen lagunduko duela espero du.

Ordenantzaren helburu nagusia da % 60ko birziklapen tasara iristea, baina ez hori bakarrik, honako hiru xede hauek ere baditu. Alde batetik, errefusaren tratamenduari dagozkion kostuak murriztea, ontzien eta paperaren tratamendua handituz, horiek ez baitute kosturik sortzen. Bestetik, berriro, herritarrek kontzientziatzea, jabetu daitezkeen garrantzitsuak den hondakinak jatorrian frakzioen arabera bereiztea eta aktiboki parte hartzea, horretarako bidea erraztuz. Horrekin batera, hondakinen murrizketa, berrerabilera eta



Udal ordezkariak, ordenantzaren onarpenaren berri ematen, prentsaurrean. TXINTXARRI

birziklapena sustatzea ere badu xede.

Hondakinen arloko Europako direktibek eta Estatuko Hondakinen Lege berriak parametro batzuk lortzea eta erregulatzera behartuta daude udalak. Horrela, behin-betiko ordenantzarekin, haietan ezarritako helburuak lortzeko bidea emango diguten tresnak izango dituztela nabarmendu zuen Zerbitzu Publikoetako batzordeburu David Mateosek

Jakinarazi zuen baita ere, ordenantzarekin batera, hainbat hobekuntza egingo direla hiri hondakinen bilketan. Honako hauek: herritarrek sentsibilizatzeko,

kontzientziatze eta formatzeko kanpaina, informazioa herritar bakoitzari helarazteko eta zerbitzuari buruzko zalantza guztiak argitzea; kanpainaren barruan, etxebizitzak bisitatzea, etxe bakoitzera txartel berriak bidaltzea, informazio-gidak banatzea, informazioa kalean bertan ematea; errefusaren ontziak txartel bidez irekitzeko sistema, hondakin horren kopurua minimizatzeko asmoarekin, mugikortasun urriko pertsonentzat egokituia; lurrazaleko zaborrontzien islak berrantolatzea, irisgarritasuna eta erraztasuna kontuan hartuta; eta lurpeko zabor ontziak kentzea.

2. Eskuko testuliburuaren azoka

Adi!

DBH3 - DBH 4 - BATX1 - BATX2

Entrega eguna	Ekaina 21 16:00 / 18:00
Liburuak erosi	Ekaina 23 16:00 / 18:00
Dirua jaso	Ekaina 24 16:00 / 17:30

ORIANTEKIDE
Guraso Elkarteak
Tokia: Larrekoetxe eraikinean



Jake MacSiacais, Iñaki Lopez de Luzuriaga ondoan duela, Xirimiri elkartera joandako entzuleei hizketan. TXINTXARRI

Militante gisa bizitakoen berri eman du Xirimirin

Jake MacSiacais Irlandako militante errepublikarrak bere azken liburuan bildutakoen berri eman die lasarteoriatarrei. Xirimiri elkarteran batu dira; berrogeita bost minutuko hitzaldia eskaini du, eta entzuleek galderak egiteko aukera izan dute saioa amaitu aurretik

Txintxarri

Herritar talde batek gonbidatuta, Jake MacSiacais irlandar militante errepublikar eta IRA erakunde armatuko kide izandakoak hitzaldia eman du asteazken arratsaldean, hilak 15 Xirimiri elkarterean. Irlandaren batasuna eta Gaelikoa –Irlandako jatorrizko hizkuntza– berreskuratzearen alde egindako aktibista lana kontatzen duen liburua idatzi du, eta hori lasarteoriatarrei aurkeztera etorri zen. Bertan bildu ditu gaztetan aktibista gisa hasi zenetik 1997ko IRAREN su etenera arte militantea bezala bizitakoak. Ingelesez eman du hitzaldia MacSiacaisek, eta Iñaki Lopez de Luzuriaga historialari lasarteoriatarra arduratu da hizlariak esandakoak euskarara ekartzeaz.


Euskaraz eman zien ongi etorria MacSiacaisek hitzaldira joandakoei, eta aitortu, "ohorea" izan dela berarentzat gonbita jaso izana. Gaineratu du "plazer handia" zela Euskal Herrian egotea, ikusten duelako "izpiritu berarekin borrokatzen duten bi herrien arteko harremana estua

dela, sinergia bat dagoela bien artean".

Bere buruaren aurkezpena egin zuen gero. 1958. urtean jaio zen, familia "xume" batean, eta bederatzi anai-arrebetatik hirugarrena da. Azaldu zuen bere amak ehundegi batean lan egiten zuela, eta, aitak, aldiz, autobusetako txartelak balioztatzen, horiek zirelako irlandes katolikoek garai haietan egin zitzaizketen lan bakarretakoak.

60. hamarkadan irlandar katolikoan aurka gertatutako errepresio "zakarraz" aritu zen gero: "Hainbat eskubide zibil aldarrikatzen hasi ziren, lan arloko segregazioa amaitzea, besteak beste, eta orduko erregimenaren erantzuna errepresioa izan zen". Garai haietan gertatzen ari zena "onartu ezinik", "jarrera aktiboa hartzea" erabaki zuen eta hor hasi zen bere militantzia. Aktibista ibilbidean bi espetxealdi jasan behar izan zituela ere kontatu zuen, eta gose greba bat ere egin zuela 1981. urtean.

Saioa amaitu aurretik, hizlariari galderak egiteko aukera izan zuten entzuleek.



Urtean zehar sortutako lanen erakusketa egin dute Brancussiko ikasleek. TXINTXARRI

Irudimena eta trebezia margolan bilakatu dituzte

Brancussi margolaritza akademiako ikasleek urtean zehar ondutako lanak erakutsi dituzte Antonio Mercero gunean

Txintxarri

Azken urteetan bezala, Brancussi margolaritza akademiako ikasleek urtean zehar ondutako lanekin osatutako erakusketa atondu dute Antonio Mercero gunean. Oraindik ere zintzilik izango dira bertako hormetan, gaur arte – 18:00etatik 20:30era bitartean ikusteko aukera izango

da –. Irekiera ekitaldira bertaratu ziren ikasle gazteak eta haien senideak. Argazkiak egin, luntxa dastatu eta margotutako obrak erakutsi zizkieten ingurukoei. Han izan ziren ere Agustin Valdivia alkatea eta Maite Iglesias zinegotzia, eta Jose Manuel Monge irakaslearekin batera talde argazkia egin zuten.



Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak, oholtzan, emanaldi amaieran ikus-entzuleak agurtzen. TXINTXARRI

Dantza eta antzerki erakustaldi ederrak egin dituzte aurten ere

XX. Antzerki eta Dantza astea egin du Kukukak. Dantza eta antzerki betetako astea eskaini diete herritarrei

Txintxarri

Ikasturtean zehar ikasitakoa eta landutakoa erakutsi dute Kukuka eskolako kideek. Aste osoko egitarau zabala aurkeztu zuten, eta jarduera ugaritan murgilduta ibili dira. Desfile koloretsu batek ireki zuen XX. Antzerki eta Dantza Astea hilaren 6an; zenbait ikasle eta irakasle herriko erdigunea

zeharkatu zuten, bizikletak zein patineteak hartuta.

Horren atzetik etorri ziren gainerako ekimenak. Hilaren 7an, 8an eta 9an oholtzara gaineko funtzioak egin zituzten, eta asteburuan, berriz, ostiral (ekainak 10) eta larunbatean (ekainak 11) egin zituzten azken bi saioetan, helduen taldeak eta dantza

erakustaldia izan ziren eszenarioa hartu zutenak. Hala ere, XX. Antzerki eta Dantza Astea igandean, hilak 12 amaitu zen, *Tabuen kutxatik oholtzara* ikuskizun solidarioarekin. Dantzarien aurretik, II. Bideo Txapelketako sariak banatu zituzten. Aurten bi bideo bakarrik aurkeztu dituzte lehiaketara, beraz, biek jaso dute saria. Postua erabakitzea kostatu egin zaiela aitortu dute aurkezle lana egin duten Kukukako kideek. Avenida tabernan lau lagunentzako bazkaria eta 50 euro eskolan jarraitzeko, Nahia eta Miren ahizpek jaso dute *Aita trolleatzen* lanagatik.

Erabakitze nahia, plazara

Lasarte-Oriako Gure Esku taldeak uztailaren 2an egingo duen ekintzaren berri eman du Okendo plazan: Pirinioetako Bidea. Jarduera bera azaltzarekin batera, jai giroan eta bertsotan irudikatu dute egun horretan tontor batetik bestera aurrera eraman nahi dutena

Maitane Aldanondo

Mendi tontorrek argiztatu eta Txoriak txori tontor batetik bestera aldi berean abestu. Labur esanda, hori da bi aste barru egingo duten ekintzaren funtsa. Horren gainean eta inguruan, ordea, beste gauza asko ere badira. Nagusia, aldarrikapena. Kataluniako eta Euskal Herriko zenbait eragilek autodeterminazio eskubidea errebindikatzeko eta nazioarteko komunitatearen arreta eskuratzea baita jardueraren bihotza. Lehen aldia da bi herrietako eragileek elkarrekin zerbaite antolatzen dutena. Deitzaileak, zehazki, Asamblea Nacional Catalana, Federació d'Entitats Excursionistes de Catalunya eta Gure Esku dira, Omnium Culturalek eta Artistes de la Recuplicac lagunduta.

Egingo dutenaren berri eman, herritarrek batu eta beroketarekin hasteko, Lasarte-Oriako taldeak girotze eguna egin zuen hilaren 11n. Jarduera eguerdiko 12:00etan hastekoa

zen, baina ordu laurden inguru atzeratu zen. Deitzaileak burubelarri aritu ziren dena prestatzen Okendo plazan. Zabalgunean jarritako mahaietako batean patata tortilla pintxoak egin zituzten, ondokoan, berriz, salmentarako zituzten kamisetak atondu zituzten. Halaber, telebista pantaila batean egitasmoaren berri ematen zuen bideoa, behin eta berriz, ikus zitekeen. Ekintzan izena emateko orriak ere eskuragarri zituzten. Erabili ez zituztenek, edonola, Gure Eskuren webgunean egiteko aukera dute.

Kantua, lokarri

Jagoba Mendizabal eta Maitane Eizmendik herritarrek inguruan zebiltzane hurbiltzeko eskatu zieten. Aurrean hainbat zituztela, ekintzaren helburuak eta nondik norakoak azaldu zizkieten. Uztailaren 2an 300 gailurretik gora argiztatuko dituzte Pirinio osoan, Higer lurmuturretik Creusera bitartean, Euskal Herria eta Katalunia batuz. Lasarte-

Oriari Igantziko Unanua mendia argiz betetzea dagokio.

Tontorrek aipatutako abestia kantatuz batuko dituzte, eta asmoa dute Unanua Okendorekin ere lortzekoa. Lierni Rekondok argitu zuenez, plazaren albo banatan, aurrez aurre jarrita zeuden Earra eskolako bi bikoteek mendi gain batetik bestera zabalduko den mezua irudikatu zuten. Bakoitik balkoira, txandaka bertsotan egin zuten, lehenik banaka, eta ondoren bikotea.

Jarraian, Mercero gunearen azpiko arkupeetan zeuden Sorgin Dantzako kideak atera ziren erdigunera. Bi ilara osatu zituzten eta haien ondoan, beste zenbait herritar animatu ziren parte hartzera. Elkarren ondoan aritu ziren hasieran, baina dantzak aurrera egin ahala, alde batekoak eta besteak elkarrekin nahasten joan ziren. Jende ugari erakarri zuen Sorgin Dantzak eta guztiak aukera izan zuten pintxo eta sagardoz osatutako hamaiketako egiteko.



Egitasmoa babesteko kamiseta erosteko aukera izan zuten herritarrek. TXINTXARRI



Jagoba Mendizabal eta Maitane Eizmendik ekintzaren berri eman zuten. TXINTXARRI



Earra bertso eskolako kideak balkoi batetik bestera aritu ziren bertsotan. TXINTXARRI



Sorgin Dantzak jende ugari erakarri zuen plazara. Zapia edo jantziak soinean, bi multzotan hasi zuten dantza. TXINTXARRI



Sagardoz eta patata tortilla pintxo osatutako hamaiketako prestatu zuten. TXINTXARRI

Orbana biluztu, eta besarkatu

Izan Inurri egitasmoak antolatutako bertso saio musikatuan parte hartu dute Jone Uria, Onintza Enbeita, Oihana Bartra eta Maider Arregi bertsolariek. Ixak Arruti eta Gari Otamendi musikariek jotako doinuek lagunduta, Amaia Agirrek jarritako gaietako bertsoak jarri dizkiete

Maitane Aldanondo

Emozioz betetako saioa aurreikus zitekeen, eta haietan aberatsa izan zen hilaren 12an kultur etxeko auditorioan bizitzakoa. Beldur eta tabuz jositako hitza da minbizia, eta haietatik biluzteko ariketa hunkigarria egin zuten Izan Inurriko kideek. Orbana erakutsi eta gordetzen dutenaren zati bat erakutsi zieten bertaratutakoei. Dramatismorik gabe, baina zintotasunez. Barruak askatzeak katarsia eragiten du, eta bihotza bere lekuan duen inor ez zen barruan ezer mugitu gabe joan.

Izan Inurriko kide Julene Illarramendik eta Miren Cuerdok harrera egin zieten eszenariotik bertaratutakoei, eta eskerrak eman zituzten: Kukukari, saioa bere XX. Antzerki eta Dantza Astean barneratzeagatik, eta Sorgin Jaiak-i, aurtengoak hasteko aukeratu izanagatik. Poza eta zirrara agerikoa zen beraien hitzetan, etorriko zenaren bide orria balitz bezala. Biak jaistean hutsik utzi zuten eszenariora bidean jarri ziren Kukukako dantzariak. Beltzez jantzita eta elkarri eskua emanda, ilara luzea osatu zuten inurriek *Martxa baten lehen notak* entzuten zela.

Adiorik ez

Ekimen solidario honen izenburuak dioen *Tabuen kutxatik oholtzara* jautzia bularreko minbizia gertutik edo norberaren azalean bizi dutenek egin zuten. Bizipenetatik abiatuta, zenbait egoera ekarri zizkieten bertsolariei, gero, Amaia Agirrek bertsotarako gai bilakatu zituenak. Agurren ondoren lehena Illarramendi izan zen. Ahizpak eta biek amaren azken egunak nola bizi izan zituzten gogoratu zuen, une gogor eta ilunenetan

maitasunez eta mimoz argia nola sortu zuten, agur esan gabe agurtu arte. Biziki hunkigarria izan zen, lehen malkoak eragin zituen lekukotzak bai bertsolariengan bai ikusleengan ere. Oihana Bartra eta Jone Uria ahots dardartiz eta begiak bustita despedidez aritu ziren, ateak itxeaz, halako uneetarako prest ez egoteaz. Ixak Arrutiren gitarrak eta Gari Otamendiren biolinak jotako *Calle melancolía*-ren doinuek lagunduta esandakoen artean, Uriak ohiko sentipen bat adierazi zuen: *"Perfekzioa ez da existitzen/eta agurretan gutxiago"*.

Umora pixka bat jarrita giroa alaitzen ahalegindu zen Aintzane, bere bizipena azaltzean. Protesirik ez erabiltzea erabaki zuen eta horren gainean askoren iritzia entzun behar izan du. Pentsatutakoa esan beharrean beste zerbaitekin erantzun ohi du eta halakoez aritu ziren Onintza Enbeita eta amorrua tragatzeko irribarre ihesbide duen Maider Arregi.

Teorema bila

Heriotzaren gaineko tabuak, zapiak, isiltasunak... Horiek guztiak sarrera gisa baliatuta, Agirrek familia bereko kide bilakatu zituen lau bertsolariak: hiltzearen omen den eta dena entzuten duen amona, hura zaintzeaz nekatuta dagoen alaba, urtetan agertu ez den ahizpa eta sokak lapurtzen dizkion biloba. Barreak eragin zituen ofizioak,

Hurrengo gai jartzaileak, Jone, zientziaren garrantziaz mintzatu zen, minbizi metastasikoa dutenen aldarria ekarri: "Ikerketa gehiago bizitza gehiago izateko". Uria matematikariari, Pitagorasek egin bezala, Inurritegi Teorema formulatzeko eskatu zion, ahal zela "gatz pixka bat eta umorea"

osagai izatea eskatuta. Ahalegindu zen bertsolaria eta amaieran asmatu: *"Eraiki zazue zeuk ta noski zuona/eta eman zaizue, gustatzen zaizuen forma"*.

Mari, aldiz, lehenengoz jarri zen mikro aurrean. 2018an kendutako titiaren lekuan protesia jarri zuen; honek, ordea, arazo ugari ekarri zizkion eta ez zuen berea sentitzen. Aintzane berri izan, eta iaz kentzea erabaki zuen. Orain besarkada goxoak eman ditzakeela aitortu zuen eta hori frogatzeko prest agertu zen. Horri helduta, Agirrek Bartra eta Enbeitari eskatu zien aurrez aurre jarri eta bertsoz bertso tarte murriztuz, besarkatzeko. Loreak trukatu joan ziren, ia ahotsik gabe eta malkotan elkarri helduta bukatu arte.

Ikusi eta ikasi

Modelo gisa bizitzen ari direna kontatu zuen Elena Gineak. Biluzik euren gorputzak erakutsi dituzte egutegi batean, gaitzaren ondorioak erakusteko, bai orbana bai titiak, baina baita gorputz guztiak bakarrak direla, gorputz normatiborik ez dela. Ondarretan biluzik egindako elkartasun protesta ere gogoratu zuen, Arregi eta Agirrek puntuka egiteko. Azken ofiziorako gaia, Sandrak ekarri zuen: Ospitalera gaixo bati laguntzera joatea. Batzuetan *escape room*etara joateko beharrik ez dago.

Amaierako agurraren aurretik gaiak proposatu zituzten eta kultur etxearen sarreran materiala saltzen aritutako emakumeak eszenariora igo ziren, Rigoberta Baldiniren *Ay Mamá* entzuten zela, Gineak lehentxeago esandakoa aldarrikatzeko: gorputz guztiak direla balekoak eta ikusteak ikasteko balio izaten duela.



Lau bertsolariak eta Amaia Agirre gai jartzailea . TXINTXARRI



Aintzane, gaitzaren ondorioz, linfedema du eta mauka jantzi behar du. TXINTXARRI



Oihana Bartra eta Onintza Enbeitak besarkatuta amaitu zuten euren ofizioa. TXINTXARRI



Oihal koloretsuak erakutsi zituzten emanaldi amaieran. TXINTXARRI

Txintxarri

Huelvako El Rocion hilabete hasieran ospatu zuten erromeria eta astebete geroago Lasarte-Oriara ekarri zuten erromesaldiaren izpiritu bera Semblante Andaluzek. Hamaika ekimen izan ziren asteburuan. Igandea izan zen egun handia, Zumaburuko Arantzazuko Ama parrokian ohiko meza rozieroa egin zuten. Altarearen albo batean Rocioko ama birjinaren irudia zegoen, bestean, berriz, eskaintzarako olibondoa, gozoak eta olioak. Semblante Rociero koruak girotu zuten elizkizuna, eta amaieran, Duende taldeko lau neska gaztek dantza egin zuten.

Apiril erdialdean hil zen Ramon Uribe-Etxebarria apaizari eskaini zioten meza, elkartearen alde egin duen guztia eskertu eta aitortzeko. Elizkizuna bukatzean, zenbait kideri domina bana jarri zieten eta hunkituta jaso zuten, artean, elkartearen presidente Juan Navarrok. Ohi bezala, salve rozieroa abestuta amaitu zuten.

Elizatik irtetean, dantza egin zuten aurreko zabalgunean. Irudia sorbaldan hartuta, Kale Nagusian barrena joan ziren elkartearen kideak eta lagunak. Kale Nagusitik barrena osatu zuten Atsobakar parkera arteko bidea. Bidean noizean behin gelditu ziren dantza egiteko eta irudia sorbaldan zeramatenak aldatzen joan ziren ere. Udaletxe aurretik abiatzean, esaterako, elizkizunean izandako Agustín Valdivia alkatea izan zen laukoteko bat.

Bazkal ordurako heldu ziren erromesak parkera. Bazkaldu aurretik, udal ordezkariak topa egin zuten Ohorezko ardoarekin eta eskaintzako mokadu goxoak ere dastatu zituzten. Ondoren parkean barreiatutako mahaietan otordua egin zuten, bakoitzak eramandakoa eta elkartearen sukaldariak prestatutako paella.

Bazkalostean dantzan jarraitu zuten. 17:30ak aldera, elkartearen bazkideen talde argazkia egin zuten; kamiseta beltza soinean, eszenario aurrean jarri ziren elkarrekin irudia egiteko. Bertaratutako guztiei luzatu zieten gonbita.

Ondoren, elkartearen dantza taldeak aritu ziren oholtzan, baita gonbidatutako Hernaniko Jakaranda, Irungo Embrujo Andaluz ere. Errenteriako Aljarafe eta Concha Rociera taldeek, berriz, Andaluziako doinuaren girotu zuten arratsaldea. Herri dantza ez zen falta izan, ezta Alma Flamencaren moda desfilea ere. Eta erromeria



Rocioko erromeriako parte hartzaileetako batzuk talde argazkia ateratzen, oholtza aurreko zabalgunean. TXINTXARRI

30 urte beteta itzuli dira plazara

Semblante Andaluz elkarteak Rocioko erromeria ospatu du Atsobakar parkean. Bi urteko etenaren ondoren eta elkartearen 30. urteurrenarekin bat eginez, festa giroak hartu du ingurua. Andaluziako doinuak eta dantzez betetako bi egun izan dira

amaitzeko, hasierara bueltatu ziren Semblante Rociero eta Duende taldeen emanaldiekin, Rocioko ama birjina agurtu aurretik.

Nabaritu dute bi urteko etenaldia, adinean bi urte zahartu direla, baina "ahal bezain ondoen" egin dutela azpimarratu dute zuzendaritza taldeko kideek. "Oso nekatuta" amaitu dute, baina parte hartzaileen erantzuna ikusirik, esfortzuak merezi izan duela uste dute: "Begibistakoa zen jendeak bazuela jarduerak berreskuratzeko gogoak, ospatzeko, festa giroan gozatzeko. Sekulakoa izan da; adibide bat jartzearen, paella bazkarian 400 pertsonak baino gehiago parte hartu dute". Halaber, ohartarazpen txiki bat egin nahi izan dute: "Barkamenak eskatu nahi dizkiogu, arrazoai bat edo beste tarteko, uneraren batean inor minduta sentitu bada".

30 urteko ibilbidea

1991. urtean eman zituen lehen urratsak Semblante Andaluzek eta urte horien erreposoa eginez, garai hartako bizipenen berri eman

diote Juan Navarro lehendakariak, Jose Perez lehendakariordeak eta Juan Jose Iñigo idazkariak. Gaur egungo bazkide hainbaten seme-alabak Mari Carmen Vegasekin –elkartearen bazkide eta dantza irakasle– sevillan dantzatzeko hasi zirela kontatu dute, eta gogoratu, urte horretan Cocherasen egin zutela lehen dantza erakustaldia ikasle haiek, urriaren 12an.

Ohartu ziren, ordea, Gipuzkoan andaluziarrak ordezkatzeko zuzuten

elkarrekin apenas zegoela –garai hartan, Arrasateko Al Andaluz soilik existitzen zen–, eta bertakoei aholkularitza eta laguntza eskatuta abiatu zuten herrikoia sortzeko prozesua. Horretarako, ordea, bazkideak biltzea ezinbestekoa zen, eta lan hori ere egin behar izan zuten: "Olivetti idazteko makina batekin osatu genuen lehen bazkide zerrenda eta 1992. urteko martxoaren 28an eratu ginen elkarte gisa". 100 pezetako bazkide kuota kobratzen zituzten



Ezker-eskuin: Jose Perez, Juan Navarro eta Juan Jose Iñigo. TXINTXARRI

orduan, "oinarrizko gastuei" aurre egin ahal izateko. Blas de Lezoko lokal batean ireki zuten lehen elkarte, eta denbora bat bertan egin ostean joan ziren egungora, Atsobakar auzora.

Lehen pauso eta esperientzia haiekin 30 urte igaro dira dagoeneko, eta egungo egoeraz ere hitz egin dute. Pandemiak eragindako osasun larrialdi egoerak utzitako "arrastoak gaintzeko ahaleginetan" ari da zuzendaritza taldea. Rocioko erromeria egin berri dute, eta gitarra eskolak ematen ere hasi dira. Bide batez, instrumentu hori ikastera animatzen direnei deia luzatu diete: "Sevillana, runba edo Paso Doblaren bat edo beste jotzen ikasiko dute, baina, batez ere, instrumentua maitatzen". Asteartetan dira saioak, 17:00etan elkartearen bertan, hortaz, parte hartu nahi duenak, bertara azaldu besterik ez du egin behar.

Gogotsu begiratzen diote etorkizunari, baina belaunaldi aldaketa baten beharra ikusten dute. Kontatu dute gazteak inplikatzeko direla, baina eurek egiten dituzten lanen ardura hartzerako orduan, pauso bat egiten dutela atzera: "Egoera horri nola aurre egin aztertu beharko dugu; pentsatzeko beste modu bat dute".

Bost hilabete egin ditu jada Navarrok lehendakari gisa, eta orain artekoaren balorazioa egin du. "Esperientzia ona" izaten ari da, eta hori hala izan dadin lagungarri zaio ondoan duen taldea: "Esperientzia dute eta izugarri laguntzen naute. Elkarlan handia dago, eta hori oso garrantzitsua da. Eurak ondoan izango ez banitu, ez nukeen kargua hartuko".

"Ohore handia" da Navarorentzat elkartearen lehendakari izatea, baina "erantzukizun handia" eskatzen duela ere nabarmendu du: "Orain arteko lehendakariak lan bikaina egin dute, eta nik ere bide horri eutsi nahi nioke". Hilabeteek aurrera egin ahala, geroz eta konfiantza handiagoz ari dela aitortu du, esperientzia batzen ari dela.

Martxoaren 28an bete zituen Semblante 30 urte, baina pandemia tarteko, ezin izan zuten ospakizun berezirik egin. Orain, ordea, osasun egoera hobetu dela baliatuz, Rocioko erromeria baliatu dute horretarako. Oroigarri bana oparitu diete sorreratik bazkide diren kideei, eta aipamen berezia egin Blas Delgado bazkide sortzaileari.



Zuriko eta Xapi




Hona hemen gure bi laguntxo: ZURIKO zakurra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izenak osatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta laukoan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

ZeeeR?! Bide batez, ezaba itzazu WAV, YNQ eta JUF guztiak eta zakur-katuok zer esaten ari diren ulertuko duzu.

Handitik txikiira

Ordena itzazu inurri eta madalena hauek, handienetik txikienera, 1etik 7rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienerari 7).



BadUNK






Itzala

Erreka harririk harri igaro nahi duen turista honek zein du itzal zuzena?

ZURE
ATZETIKAN NABILELA
A A UA A AAA

Hamahiru



Beno, beno, beno, hori da abere pila! Eta gidariek ez al dute arriskurik ikusten?! Nolanahi dela ere, aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.

DOMINOAN

Garaian garaikoa. Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei gaiez egin dago. Honokoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.

The domino board consists of several rectangular segments, each divided into two halves by a vertical line. The illustrations are as follows from top to bottom:

- Segment 1: Broccoli on the left, empty on the right.
- Segment 2: Strawberry on the left, watermelon slice on the right.
- Segment 3: Red pepper on the left, empty on the right.
- Segment 4: Red pepper on the left, green leaf on the right.
- Segment 5: Empty on the left, two cherries on the right.
- Segment 6: Broccoli on the left, empty on the right.
- Segment 7: Empty on the left, empty on the right.
- Segment 8: Red pepper on the left, strawberry on the right.

Etxeberria eta Perez, garaile Lasarteko Sarian

Benjamin mailatik senior mailara Buruntzaldea IKTko igerilariak proba berezia lehiatu dute, Lasarteko 31. Saria. Talde gonbidatuaren aurka aritu dira herriko elkarteko kideak. Domina ugari batu dituzte eta emakumezkoen sari nagusia etxean geratu da

Txintxarri

Igerilariak bete zen hilaren 11n eta 12an Lasarte-Oriako Maialen Chourraut kiroldegia. Lasarte 31. Saria lehiatu zen. Aurten bi jardunaldi ezberdin egin ziren eta hainbat talde izan ziren gonbidatu.

Larunbat arratsaldean, hilaren 11n, benjamin kategoriako haurrak aritu ziren, hau da, 2013tik 2011ra jaiotako neska-mutilak eta 2010eko mutilak.

Jardunaldi honetan, Buruntzaldea IKTko gaztetxoek gain, Ordizia eta Hernani taldeetako haurrak ere parte hartu zuten.

Benjamin A mailako txikiak estilo ezberdinetako 50 m. proba eta 100 m. lau estiloak jokatu zituzten; B mailakoek, berriz, estilo ezberdinetako 100 m. probak eta 200 m. lau estiloak.

Igerilari bakoitzak proba bakarria egiteko aukera bazuen ere, australiar kanporaketa probaz ere gozatu zuten gazteek.

Horrez gain, entrenatzaileen aurka ere jardun ziren 40 igerilari errelebo erraldoi batean.

Igande goizean, berriz, igeriketa taldeko gainerako mailako kideen txanda izan zen eta Iruñako



Sariko garaile Santiago Perez eta Garazi Etxeberria. KHP - FOTO. GIPUZKOA NATACION

Amaya, Zarautz Balea, Hernani KE, Ordizia eta Fortuna taldeetako kideei aurre egin behar izan zieten.

Hiru mailatan banatu ziren sariak alebinak, infantilak eta junior-absolutuak eta horren arabera, hainbat proba lehiatu zituzten: estilo ezberdinetako 100 m. probak, 400 m. libreak eta 200 m. zein 400 m. lau estilo probak.

Igerilari bakoitzak bi probatan parte hartu zuen. Buruntzaldeako kideak podiumera igo ziren; FINA puntuazio handiena lortu zuten

bi igerilariak, gainera, sari nagusia eraman zuten. Eta dominez gain, Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberria eta Hernani taldeko Santiago Perez gazteek sari berezia eraman zuten etxera.

Gipuzkoako txapelketa

Hitzordu berezi honen ostean, alebin mailako igerilariak ez dute atsedenik izango. Hilaren 18an eta 19an, Gipuzkoako Udako txapelketa lehiatuko dute, Ordizian.

Bi brontze Munduko txapelketan

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Madeirako hiriburu Funchalen, Portugalen lehiatzen ari den Igeriketa Egokitutako Munduko txapelketan parte hartzen ari da S8 mailan eta bi domina jantzi ditu. Hilaren 12an eman zion hasiera lehiaketari igerilari gazteak eta 400 metro estilo librean lortu zuen lehen domina. Proba hasieratik hirugarren postuan kokatu eta ederki eutsi zuen amaierara arte.

Bigarrena 4x50 m. 20 puntu estilo errelebo proban eskuratu

zuen. Lauko taldea Zudairek, Miguel Luque, Toni Ponce eta Marta Fernandez Infantek osatu zuten. Hirugarren postuan zihon taldea eta azken luzea egin zuen gazteak. Ederki igeri egin eta ehuneko gutxirengatik ez zuen zilarrezko domina eskuratu laukoak. Proba hori lehiatzeko 100 m. tximeletako kanporaketa lehiatzeari uko egin zion gazteak.

100 m. libreko final zirrargarrian ere lehiatu zuen.



ESPAINIako PARALINPIAR KOMITEA

Brontzeko dominetik gertu izan zen, hiru ehunetara, eta Espainiako errekor berria ezarri du, 1.08,26.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

JOSE MARTIJA OROIMENEZKOA

Alebin F8 mailako hamabi taldek Jose Martija V. Futbol Topaketa lehiatuko dute.

Larunbata. Michelin Kirol gunea.

ERRUGBIA

ANDORRako TORNEOA

Alex Saleta herritarra Andorrako Nazioarteko Torneon parte hartuko du errugbi zazpiko Euskadiko selekzioarekin.

Larunbata eta igandea. Andorran.

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko alebin mailako igerilariak Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Majori kir., Ordizian.

GIMNASTIKA

ERAKUSTALDIA

LOEko gimnastek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute. Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

JUDO

ERAKUSTALDIA

LOEko judoek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute.

Igandea. 10:00. Maialen Chourraut kir.

ARRAUNA

HERNANIKO I. BANDERA

Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribiak ETE Ligari hasiera emango dio Hernaniko I. Banderan.

Igandea. 11:30. San Pedron.

LASTERKETAK

UXUE TRAIL

Hainbat herritar Uxue Trail proban lehiatuko dira.

Larunbata. 09:00. Usurbilen.

AZERI BILA LASTERKETA

Herriko hainbat korrikalarik XXII. Azeri Bila proban parte hartuko dute.

Larunbata. 18:30. Hernanin.

TRIATLOIA

LEKETIOKO TRIATLOIA

Herriko kirolariak Lekeitioko 29. Triatloian lehiatuko dira.

Larunbata. 16:30. Lekeition.

Ostadarreko atletak, ederki Adin Txikiko Gipuzkoako txapelketan

Lau domina jantzi dituzte atleta gazteek. Espainiako Ligako azken jardunaldian ere lehiatu dira herritarrak

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak Adin Txikiko Gipuzkoako txapelketan zein Espainiako Ligako azken jardunaldiak lehiatu zituzten hilaren 11n eta 12an.

Gaztetxoek lehiaketan izan ziren emaitzarik onenak eta zehazki, xabalina jaurtiketa proban. 16 eta 18 urtez azpiko probako podiumean izan ziren Ostadar SKTko ordezkariak.

18 urtez azpiko mailan, Peru Goikoetxeak urrezko domina eskuratu zuen. 16 urtez azpikoa mailan, berriz, Aiala Ramos garaile izan zen eta Oihane Belartietak bigarren postuan lagundu zuen; Hodei Garciak hirugarren postua eskuratu zuen.

Egoera ezberdinak

Yeray Veroniz, Enara Gonzalez eta Naroa Furundarena herritarrak La Nuncia, Alacanten eta Donostian Espainiako Ligako saioetan parte hartu zuten eta ederki egin zuten lan.

Real Sociedad taldea eta Yeray Veroniz Alacant aldera egin zuten bidaia Joma Ligako Ohorezko mailako finalean parte hartzeko. Donostiako taldeak saioan hirugarren postua eskuratu arren, laugarren izan zen sailkapen orokorrean.



Aiala Ramos eta Oihane Belartietak, podiumean. OSTADR ATLETISMOA

Veronizek 100 m. lasterketan parte hartu zuen, 11,36 denbora eginez.

Ostadar SKTko Gonzalez eta Furundarena, berriz, Bidasoa Atletiko Taldearekin (BAT) parte hartu zuten Iberdrola ligako Ohorezko mailan mantentzeko lehian.

Furundarenak bi proba egin zituen: jauzi hirukoitza -bigarren postua eskuratu zuen, 12,60 m.- eta 4x100 m. erreleboa; Gonzalez luzera-jauzian bakarrik jardun zen.

Jardunaldian eskuratutako puntuak esker, hurrengo urtean ere BAT Ohorezko mailan izango da.

Giro ederra I. Lagunarteko Taula Xake txapelketan

Abadiñoko taldea izan da garaile Mirentxu Trinketean jokatu den proban. Sei talde izan dira lehiatzen; tartean, herriko Taula Xake Klubeko bi. Antolatzaileak pozarren daude eta txapelketa zein ekimen gehiago antolatzeko prest agertu dira klubeko kideak

Txintxarri

Pilota hotsek erlojuen soinuei egin zieten lekua hilaren 12an Mirentxu Trinketean. I. Lagunarteko Taula Xake txapelketa jokatu zen bertan eta Abadiñoko taldea izan zen nagusi. Bizkaitarrek sari nagusia eraman zuten arren, asko ikasi zuten jokalariek guztiek, baita txapelketako antolatzaile Taula Xake Klubeko kideek ere.

Abadiño, Getaria, Santurtzi eta Martintxo lehiatu ziren proban, herriko elkarteko bi talderekin batera. Abadiño eta Santurtzi taldeak Lasarte-Oriara etortzeak txapelketaren maila igotzea ekarri zuela onartu dute antolatzaileek. "Maisu tituluak etorri dira jokatzera, baita Euskadiko hautatzailea ere. Nazioartean lehiatzen diren jokalariek dira eta horrek zail jarri du garaipena", adierazi dute.

Taldea bakoitzak xake azkarreko hamar partida lehiatu zituen eta onena Abadiñoko taldea izan zen. Getaria bigarren sailkatu zen eta Santurtzi hirugarren.

Taulako bi taldeak azken postuetan izan arren, klubeko



Jokalariek pentsakor, I. Lagunarteko Taula Xake txapelketako neurketan. TXINTXARRI

kideei ez die axola sailkapenak: "Taldea hasiberria gara. Gure helburua 90. hamarkadan Lasarte-Oriako taldeak zuen mailara iristea da, Euskal Ligara. Baina aurten hasi gara lehiatzen eta pausoz pauso joan behar gara".

Erronka gaituta

Taula Xake Klubeko kideak pozarren daude txapelketa antolatzeak suposatu duen erronka gaituta dutelako. "Aipatu moduan, klub gaztea

gara; abenduan hasi ginen lanean. Horrelako txapelketa bat antolatzea erronka izan da. Hala ere, guztia primeran atera da; ordutegiak bete ziren, erritmoa mantendu zen...".

Horregatik, txapelketa gehiago edo bestelako ekimen irekiagoak egiteko prest daudela ere adierazi dute. "Lagunarteko txapelketa zerbait itxia izan da. Baina herritarren parte hartzea sustatzeko bestelako ekimenak prestatzeko gogoak sortu dizkigu esperientziak", onartu dute.



Donostia Arraun Lagunak (eskuinean), podiumean. GIPIZKOAKO ARRAUN FEDERAKUNDEA

Arraun Lagunak, hirugarren Gipuzkoako txapelketan

Arraun taldeak liga ezberdinak hasteko prest dira; aurrekari modura, Gipuzkoako txapelketa jokatu dute

Txintxarri

Gipuzkoako arraun taldeak Hondarribian bildu ziren hilaren 12an, nor baino nor, lurraldeko txapelketa erabakitzeko. Lasarte-Oriako ordezkariak izan ziren lehiatzen eguraldiari aurre eginez: Aiora Belartietia (Donostia Arraun Lagunak), Intza Fernandez (Hondarribia AE) eta Gaizka Ormazabal (Hibaika). Belartietia izan zen podiumera igo zen bakarra; Donostia Arraun Lagunak brontzezko postua eskuratu zuen. Txanda ezberdinetan lehiatu ziren emakumezko mailako bi herritarrek.

Donostia Arraun Lagunak 2022ko Euskotren Ligan aurkariak izan zituen aurrez aurre hirugarren txandan: Orio, Tolosaldea eta Donostiarra. Hondarribiak, berriz, ETE Ligako Zumaia eta Hibaikaren aurka egin zuen arraun bigarrenean.

Orio izan zen nagusi, Tolosaldea bigarren sailkatu zen eta Donostia Arraun Lagunak hirugarren izan zen. Hondarribiak seigarren postuan amaitu zuen lehia.

Gizonezko mailan, berriz, Hibaikak Mutriku, Lapurdi eta Illunbe taldeekin neurtu behar izan zituen indarrak lehen txandan. Sailkapen orokorrean, Hondarribi izan zen garaile; Hibaika, aldiz, hamargarren izan zen.

Liga hasierak

Denboraldia hilaren 19an hasiko du ETE Ligak, beraz, Fernandezek eskifaia lehen hitzordua izango du San Pedron, Hernaniko I. Bandera.

Hilaren 25ean, ARC2ko lehen jardunaldia izango da Donibane Lohitzunen; Euskotren Ligak, berriz, uztailearen 2an eta 3an Bilbon eta Donostian lehiatuko ditu lehen bi estropadak.

Ostadar Inklusio taldeko kideak bikain ari dira lehiatzen

Atletismoko Euskadiko txapelketan zein Eslalomeko Espainiako txapelketan dominak eskuratu dituzte

Txintxarri

Ostadar Inklusioa taldeko kirolariak lan eta lan ari dira. Hilaren 4an eta 5ean, esate baterako, atletismo eta eslalom saileko kideek probak jokatu eta dominak jantzi zituzten.

Atletismo saileko kideek maiatzaren 15ean, Euskadiko txapelketa lehiatu zuten Durangon eta hilaren 4an, Donostiako Miniestadioan izan

dira lehiatzen Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatutako proba libreetan.

Euskadiko txapelketan, 100 m. eta 200 m. lasterketan parte hartu zuten eta domina uzta ederra eraman zuen.

Diana Benedicto (T-12 maila) eta Ibai Altuna (T-36 maila) garaile izan ziren bi probatan. Ane Asensioa lehenengoa izan zen T-34 mailako 100 m. lasterketan



Euskadiko Atletismo txapelketako eta Eslalomeko Espainiako txapelketako irudiak. OSTADAR

eta Jon Mendozak lehen lasterketan brontzezko domina eta bigarrenean zilarrezkoa jantzi zituen T-36 mailan.

Donostian, berriz, maila ezberdinetako atletekin lehiatu ziren. Hori dela eta, 100 m. lasterketan parte hartu zuten

bakarrak Ostadarreko Benedictok (17,41), Asensioak (36,50) eta Mendozak (17,02).

Hiru domina

Bestalde, taldekide Gorka Uzkudun eta Xuban Santin Alacant-era egin zuten bidaia hilaren 4an eta 5ean Eslalom modalitateko Espainiako txapelketa jokatzeko.

Ederki jardun ziren proba ezberdinetan Ostadar Inklusioa taldeko kideak eta biek dominak ekarri zituzten etxera.

Uzkudunek zilarra eskuratu zuen banakako eliminazio proban; Santinek, berriz, zilarra erlojupeko proban eta brontzea banakako eliminazio proban.



Los Chavales de Martika taldeko ordezkariak, Jose Martijaren senitartekoak eta Agustin Valdivia alkatea, aurkezpenean. TXINTXARRI

Hamabi talde lehian, Jose Martijaren omenez

Bi urteko etenaren ostean, Jose Martijaren omenezko V. Futbol Topaketak Michelin kirol gunea hartuko du berriro ere. Alebin mailako 250 bat gaztetxo izango dira zelaian lehian. Infantilen Ohorezko Mailako partida batez ere gozatu ahalko da

Txintxarri

Jose Martijaren omenezko V. Txapelketa aurkeztu zuten hilaren 10ean. Bi urteko hutsunearen ondoren, berriro eutsi diote "hastea horrenbeste kostatu" zitzaien jardura. Arazoak ez zaizkiela falta izan aitortu du Javier Martinezek,

baina "denen ahaleginarekin" bueltan dira.

Hamabi taldek parte hartuko dute. Girondins de Burdeos ezingo du etorri eta haren ordezkari Racing de Santander ariko da. Hilaren 18an 10:00etan hasiko dute txapelketa. Aurrez, omenaldia egingo diote Jose

Martijari eta urtero bezala futboleant aritu den herritar bati saria emango diote, oraingoan, Javi Olaizola izango da.

Ohi bezala, hamabi taldeak bazkaltzera gonbidatuko dituzte eta Donosti Cup prestatzeko ohorezko infantilen partida bat ere jokatuko dute.

LOKEko tenis atala ikasturteko azken txapelketetan, bikain

Kadete zein Infantil mailako Gipuzkoako txapelketan lehen postuetan izan dira bakarka eta taldeka

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Tenis sailak amaiera eman dio 2021-2022 denboraldiari.

Mariasun Yurrita arduradunak azaldu digunez, tenis jokalarik gazteak ederki ibili dira maila ezberdinetan eta horren erakusle bakarka zein taldeka lortutako emaitzak dira.

Hala nola, Unax Urdampilleta Kadete Mailako Eskolarteko Gipuzkoako txapelketan garaile izan zen eta Gabriele Fernandorena, Joane Lizaso eta Nerea Odriozola hirukoak Infantil



LOKEko infantil taldea (eskuinetik hasita lehen hirurak). LOKE TENIS

mailako Gipuzkoako taldekako txapelketa eskuratu zuen Azpeitian jokatutako finalean.

Horrez gain, ataleko arduradun Yurritak ere parte hartu du

lehiaketaren batean. Euskadiko Selektzioak Beterano mailako Erkidego Arteko Espainiako Txapelketarako hautatu, eta Mallorcan izan zen taldekako lehian.

Euskadi finalerdia iritsi zen, Aragoi eta Valentzia gainditu ostean. Gerora Txapelketako irabazle izango zen Katalunia izan zuen aurrez aurre finalaurrekoan, eta 3-0 galdu zuen.

LOKE denboraldi amaiera

Hilaren 19an, Tenis saileko kideak LOKEko gimnastika eta judoko kideekin bat egingo dute denboraldi amaierako bazkarian.

Aurretik Judoko kideek erakustaldia egingo dute Maialen Chourraut kiroldegian; Gimnastikako kideek, berriz, hilaren 18an, arratsaldean izango dute hitzordua.

Martija, Racingeko kirol zuzendari

Real Racing Club futbol taldeak kirol zuzendari berria duela jakitera eman du. Mikel Martija herritarra izango da lan hori egingo duen pertsona.

Martija 2013 eta 2021 urte artean Eibarren egon zen lanean. Lehenik harrobian eta gerora, idazkari tekniko postuan. Ostadar SKTn eman zituen bere lehen pausoak futboleant jokalaria eta entrenatzaile modura. Duela

hamar urte, Erregionalen Ohorezko Mailara igo zuen lehen taldea.

Real Racing Club taldea SmartBank Ligara igo berri da eta lantaldea berritzen ari da.



Mikel Martija. REAL RACING CLUB

Alebin kategoriako txapelketa da, 2011 urtekoak, zela txikian jokatuko dute eta hoge minutuko partidak izango dira, zazpi jokalaria gehi atezaina. Guztira, 250 bat haur.

Ricky Diezek eskerrak eman dizkio alkateari eta udalari erakutsitako babesagatik. "Gogorra" izan da bi urteren ondoren berriz abiaraztea, baina taldeen eta babesleen laguntzari esker egin dute.

Txapelketa hazten ari dela diote eta asko gustatzen zaiela sortzen den giroa. "Martijaren jokalaria ohiak elkartzen gara, ia 50 urte ditugunak, pasadizioak kontatzen dizkiogu elkarri, gure seme-alabak laguntzera etortzen

dira... Uste dut berak nahi zuen onena sustatzen dugula futbola eta adiskidetasuna".

Ilusio horrekin 09:00etatik 19:00etara ariko dira eta herritarrak animatu dituzte giroaz gozatzen.

Agustin Valdivia alkateak eskerrak eman dizkie txapelketa antolatzeagatik, baita Jose Martija aintzatesten jarraitzeagatik ere. "Pandemian etxean egon behar izan genuen eta kirol ekimenik ez zegoen, denok ikusi genuen gure seme-alabentzat zeinen garrantzitsua den kirola egitea. Jose Martijak herrian zeuden haurrak batu zituen, bereziki Sasoetakoak, eta balio batzuk irakatsi zizkien".

Bizkortzen enpresak kirol instalakuntzak kudeatuko ditu

Kirol koordinazio teknikoa, kirol jarduerak eta uretako sorospenak kudeatuko ditu enpresak

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Udalak kirol instalakuntzak kudeatzeko kontratua Bizkortzen enpresari esleitu dio. Aurrekontua 301.000 eurokoa da.

Enpresak Lasarte-Oria Kirol Udal Kirol Zerbitzuek eskaintzen dituzten kirol jarduerak diseinatu, planifikatu, sustatu eta garatuko ditu, udalaren gidalerroak eta kirol politika jarraikiz.

Kirol instalakuntzen koordinazio teknikoa ere egin beharko du esleipendunak, hala

nola, kirol entitateekin eta ikastetxeekin harremanak eta koordinazioa.

Era berean, modu aktiboan zaindu beharko du igerilekua Bizkortzen enpresak eta besteak, beste, uretako salbamendu eta sorospenaren arduradun izango da eta igerilekuko instalazioen, materialen, uraren eta airearen kontrola eraman beharko du.

Hori guztiaz gain, kirol koordinatzailearen, ikastaro ezberdinen begiralearen eta soroslearen kontratazioa ere enpresaren esku egongo da.

ZORION AGURRAK



Lorea
Zorionak Loretxu, zure 11. urtebetetzean, aita, ama eta Oihanaren partez. Asko maite zaitugu, bihotza!!!



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 17	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 18	URBISTONDO	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 19	URBISTONDO	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 20	GANDARIAS-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 21	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 22	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 23	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLEDGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Marina D'Or urbanizazioa (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldia eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratuden apartamentua alokagai. 60 metro

karratuden lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

LANA

ESKAINAZA
Irailen irekiko dugun taberna baterako sukaldari bila gabilta. Interesa baduzu idatzi hona: arimataldeasl@gmail.com.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsalde deitu).

ESKARIA

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa

aritzeko.
Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbitzaile lan egiteko prest nago, orduka. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egiteko nuke. Etxeko lanetan, garbiketari... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketari.
Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

BESTELAKOAK

JANTZIAK

Sorgin Dantzan aritzeko alkandora baten bila nabil, 12-14 urtekoen taila duen gazte batentzat, erosteko edo bueltan itzultzeko. Harremanetarako zenbakia, 670 82 28 02.

HEZKUNTZA

Udan haurrak zaintzeko edo errefortzu eskolak

emateko prest dagoen gazte euskaldun bat naiz, Lehen Hezkuntza eta Pedagogian graduatua eta 2-12 urteko haurrekin esperientziaduna, irakasle zein aisialdiko hezitzaile modura. Harremanetarako zenbakia, 634 21 43 61.

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

AURKITUTAKOAK

Urrezko kate bat aurkitu nuen apirilaren 20an. Galduta duena jar dadila nirekin harremanetan: 626057411 (Maria)

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Madidi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julien Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Jose Lanchas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Soinua, kamera...ekin! Bost urteko uzta



Bartzelonan eta Lasarte-Orian ez ezik, Donostiako Tabakaleran ere aurkeztu dute proiektua. ORIARTE BHI

Oriarte BHIko ikasle talde batek 'Gure artean' dokumentala ondu du, Lasarte-Oriak urteetan zehar jasan dituen aldaketak hizpide hartuta. Ikastetxe horretan bost urte daramatzate Zinema (h)abian egitasmoan parte hartzen; orduetik, bost ikus-entzunezko ondu dituzte

Zinema (h)abian egitasmoa kideak

Aste luzeak izan dira azken hauek Oriarte institutuko DBH 4 Fko ikasleentzat. Baina nekeak, kezak, urduritasunak, eta, batez ere, egindako lan gogorrak bere emaitza eman dute eta aurtan ere, azkeneko bostetan bezala, beren filma aurkeztu dute. *Gure artean* izena duen dokumentalak Lasarte-Oriak urteetan zehar jasan dituen aldaketak ditu hizpide, herria eta herritarrak memoria emozional baten protagonistak bihurtuz. "*Lan artean* dokumentala egin genuen iaz, hainbat lanbideri buruz; gure asmoa trilogia bat egitea da gure herriari buruz".

Bost urte bete dira jada Oriarte BHIk Zinema (h)abian proiektuarekin bat egin zuenetik eta orduetik bost film egin ditugu Oriarten beste hainbeste ikasturtetan.

Aurtengo filmaren estreinaldia Bartzelonako Filmoteca Catalanen izan zen ekainaren 1ean, Zinema (h)abian/Cinema en curs proiektuan parte hartzen duten

beste ikastetxeekin batera eta pandemiagatik bi urtez etendako ekintza berreskuratuz. Harantz joan ziren ikasleak eta irakasleak, eta profesionalak bezala, filma aurkeztu zuten eta egindako galderei erantzun.

Ondoren, hona ekartzeko txanda izan zen, eta hilaren 7an saio bikoitza egin zuten, Donostiako Tabakaleran goizean, Bartzelonatik etorritako Moises Broggi institutuko ikasleekin batera, eta, arratsaldean, berriz, Lasarte-Oriako Antonio Mercero gunean, etxekoen aurrean.

Harro daude ikasleak bere lanarekin, eta pozik proiektua bukatuta ikustearekin (eta Bartzelonan eta herrian egindako harrerarekin), baina bidea ez da samurra izan eta emaitza egindako lan gogorraren ondorioa dela gogoratu nahi digute.

Proiektu hori eskolako ohiko jardunetatik ateratzen den ekimena da, eta aukera ematen die ikasleei zinema mundua barru barrutik ezagutzeko eta era berean

zinemagile bihurtzeko, ekipo profesionalak erabiliz eta zinemagile baten aholkua eta laguntza jasoz. Bartzelonako A Bao a Qu elkartearen eskutik, nazioarteko ekimena da Cinema en curs, eta ikasleen eta zinemagileen arteko elkarlanaren bidez gizarte baloreak eta ekimenak bultzatzeko helburua du, zinema hezkuntza tresna bihurtuz.

Ikasketa prozesu berezia

Ikasketa prozesua ere nahiko berezia da, organikoa, gidoirik eta ohiko storyboard-ik egiten ikasi gabe. Zinemagile ospetsuen obrak eta zatiak ikusiz eta komentatuz enkuadre, argi eta soinuaren munduan murgiltzen dira ikasleak eta beraien lanak egiteari ekiten diote. Hasieran, norberaren mugikorrekin filmatzen dute eta, ondoren, ekipo profesionalekin. Ekipo horiek Elias Querejeta Zinema eskolari esker erabil ditzakegu.

Filmaren gaia edo nondik norakoa ikasturte erdialdean



Ikasleak eta dokumentaleko protagonistak, filmazio egunetako batean. ORIARTE BHI



Antonio Mercero gunea lepo bete zen ikus-entzunezkoaren egunean. ORIARTE BHI

erabakitzen dute ikasleek hainbat aukeren artean, eta hortik aurrera dokumentazio eta bilaketa lan bat hasten dute, ereduak ikusiz eta aztertuz, denbora lerro bat antolatuz eta dena ondo josiz, kontakizuna behar den bezala lotu arte. Dendena taldelanean egiten da eta erabakiak ere guztien artean adostuta hartzen dira.

Guztia prest, maiatz hasieran filmaziori ekiten zaio, aste oso batean, goizetik iluntzera. Osteen, edizioa. Muntaketa ere denen artean egin dute, elkarlanean... Ahotsak ere eurek grabatzen dituzte. Oso egun "intentsoak" izaten dira, eta neka-neka eginda bukatzen dute ikasleek, baina poz-pezik era berean, ezarritako helburura iritsi direlako.

IKASTURTEKO AZKENA

Oriarte institutuak eta TXINTXARRI aldizkariak elkarlanean jardun dute kurtso honetan, apiriletik. Hilean behin, ikastetxe horretako mintegietan aritzen diren ikasleek landu dutenaren berri eman dute, aldizkari honen bidez. Zinema (h)abian parte hartu duten ikasle taldeak prestatu du hirugarren artikulua. Gozatu erreportajeaz, udaz, eta irailera arte!



Egindako lana erakustea besterik ez zaie gelditzen, orduan, eta, benetako zinemagileek bezala, irrikitan egoten dira ikusleei zer iruditu zaien jakiteko. Oraindik ez baduzue ikusi, laster izango duzue aukera, *Cinemaencurs.org* eta Vimeo plataformetan ikusi ahal izateko, eta, baita ere, Okendo Zinema Elkarteak urtero antolatzen dituen udako zinema saioetan, elkartearekin aurtan hasitako lankidetzaren barruan. Ea gustuko duzuen!

**HERRIKO GAI
BURUZKO TRILOGIA
BAT EGIN NAHI
DUTE; MOMENTUZ, BI
FILM ONDU DITUZTE**

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Emanaldia. Amaitzear den ikasturtean zehar entseatutako dantzak plazaratuko ditu Erketz Euskal Dantza Taldeak, Okendo plazan. Sarrera doakoa da. Okendo plaza, 19:00etan.



LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasarteoriarrek gauza txar denak erreko dituzte Andatza plazan, hilaren 23an, ostegunarekin, San Joan sua piztu eta berehala. 22:00etan izango da hori, eta aurretik, udal korporazioko kideak eta Erketz EDTko dantzariak udaletxe zaharretik abiatuko dira enparantzara bidean, musikarien doinuek lagunduta. Iritsi eta gero, San Joan zortzikoa eta Sokadantza dantzatuko dituzte. Alboka abesbatzak eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak ere parte hartuko dute emanaldian, eta herritarrek aukera izango dute amaierako kalejirara batzeko.

Udaletxe zaharretik Andatza enparantzara, 21:30etik aurrera.

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Erakusketa

Sorgin Jaiak-ek 20 urte bete ditu aurten, eta bere historia gogoratzeko argazki erakusketa prestatu du. Jalgi kafe antzokia, 09:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi akademiako ikasleak kurtsoan zehar egindako lanak ari dira erakusten, hilaren 18ra arte. Antonio Mercero gunea, 18:00etatik 20:30era.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Anarkia Relacional antzezlanaren emanaldia egingo du Ttipia konpainiak. Sarrerek 3 euro balio dute. Manuel Lekuona, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Rally SC Euskadi

Vespa eta Lambretta topaketa egingo du Scooter Club Euskadi elkarteak: 19:00etan, harrera eta motorren erakusketa Donostia etorbidean. Izen emateak, Santxo tabernan. 21:00etan, afaria, Santxo tabernan. 22:30ean, herrian barrena ibilbidea, kontzertuetara joan aurretik. 23:00etan, DJen emanaldiak Buenetxea tabernan. Lasarte-Oria, 19:00etatik aurrera.

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Rally SC Euskadi

Scooter Club Euskadi elkarteak motor gidarientzako topaketa antolatu du. Bigarren eguneko egitaraua:

10:00etan, motorren erakusketa Okendo plazan.

11:00etan, barrikotea eta pintxoak Tiburtzio Artizar. Txalaparta emanaldia ere egingo dute.

12:00etan, txangoa.

15:00etan, bazkaria, Jauregin.

18:30ean, motorren erakusketa Andapa kalean. Genesis tabernan garagardo kupelak jarriko dituzte.

21:30ean, afaria Buenetxea tabernan.

22:00etan, kontzertuak Buenetxean: Bonzos eta Neumaticos Cheinwz.

Herrian zehar, 10:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Mahai jokoak

Biyak Bat egoitzako kideak mahai jokoetan ariko dira.

Biyak Bat egoitza, 16:00etan.

LASARTE-ORIA Emanaldia

Erketz Euskal Dantza Taldeak ikasturte amaierako emanaldia egingo du. Okendo plaza, 19:00etan.

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA Rally SC Euskadi

Scooter Club Euskadi elkarteak motor gidarientzako topaketa antolatu du: 12:30ean, bermuta eta motorren erakusketa, Arkupe tabernan.

14:30ean, bazkaria Arkupen. Mota guztietako pintxoak dastatuko dituzte.

Lasarte-Oria, 12:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Mahai jokoak

Biyak Bat egoitzako kideak mahai jokoetan ariko dira.

Biyak Bat egoitza, 16:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Ensemble Moxos taldeak kontzertua emango du. Sarrerek 6 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal Musika Eskolako kideek kurtso amaierako emanaldia egingo dute. Gonbidapena behar da.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEARTEA 21

LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal Musika Eskolako kideek kurtso amaierako emanaldia egingo dute. Gonbidapena behar da.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA Jokoak

Biyak Bat egoitzako kideek igel, toka eta botean jokatuko dute.

Isla plaza, 16:00etan.

OSTEGUNA 23

LASARTE-ORIA Erakustaldia

Biyak Bat egoitzako kideek gimnastika erakustaldia egingo dute. Maialen Chourraut, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Biyak Bat eta Gure Kabia koruek kontzertua emango dute. Sarrera, doan. Komentua, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Herritarrek urteko gauza txarrak erreko dituzte San Joan suan. Hori baino lehen, emanaldia egingo dute Erketz EDT, Alboka abesbatza eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak. Dantzariak eta udal korporazioko kideak udaletxe zaharretik abiatuko dira.

Udaletxe zaharretik Andatza plazara, 21:30ean.

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Zunba

Emakumeen Zentroak zunba maratoi bat antolatu du, San Pedro Jaien aurrekari gisa.

Okendo plaza, 10:00etan.

LASARTE-ORIA Emanaldia

Alboka abesbatzak ikasturte amaierako kontzertua emango du. Sarrerek doakoak dira.

Ama Brigitarren komentua, 19:30etik aurrera.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA Bola eta toka

Bola eta toka saioak antolatu ditu Ostadar SKTK.

Michelingo bolatokia, 09:00etan.

LASARTE-ORIA Bola eta toka

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartearen eskutik, herritarrek Familien I. Mendi Ibilaldiaz gozatuko dute. Antonio Mercero gunea albotik abiatu eta Andatza mendira joan-etorria egingo dute, 12,5 kilometrokoa.

Michelingo bolatokia, 09:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Zero Sette Akordeoi Orkestrak kurtso bukaerako emanaldia egingo du.

Sarrera, doan. Okendo plaza, 13:00etan.

ASTELEHENA 27

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Jokoetan aritu diren bazkideei sariak emango dizkie Biyak Bat egoitzako zuzendaritza taldeak.

Biyak Bat egoitza, 18:00etan.

Jaietako egitarauak

Sanpedroetako eta Sorgin Jaietako egitarauak xehe-xehe emango ditugu hilaren 24ko aldizkari berezian, festak baino lehen kaleratuko dugunean. Bien bitartean, www.txintxarri.eus atari digitalean kontsulta dezakezue nork antolatu duen zer, non eta noiz, QR kode hau eskaneatuta:





Udaleko eta zenbait eragiletako ordezkariak, aurtengo San Pedro Jaietako programa aurkezten, Okendo plazan. TXINTXARRI

Prestatu blusak, badatoz aurtengo sanpedroak!

Hilaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditu Lasarte-Oriak herriko zaindariaren festak. Makina bat jardueraz osatutako egitaraua prestatu dute udalak eta eragileek; aurtengo omendua Nagusilan Adin Nagusikoen Boluntariotza Taldea izango da. Aurrekontua, 187.789 eurokoa

Txintxarri

Aurtengoak bai, beti ezagutu izan ditugun sanpedroak izango dira: maskararik ez, ordutegi murrizketarik ez, egitaraua jardueraz lepo, herritarrek blusa jantzita eta festarako gogoz. Jaietako programa aurkeztu berri dute Lasarte-Oriako Udalak eta zenbait eragilek: hilaren 28tik hasi eta uztailearen 2ra arte, hamaika kontzertu, ikuskizun, emanaldi, hitzordu gastronomiko eta bestelako ekimen izango dituzte aukeran. Festak saileko zinegotzi Txus Alonsok iragarri du hasi direla eskuorriak etxe etxe banatzen, eta bertsio digitala ere deskarga daitekeela, udalaren

webgunean. Horrez gain, komertzio eta establezimenduetan formatu txikiko gidak utzi dituzte. Bestalde, herriko festa alternatiboak antolatzen dituen eragileak, Sorgin Jaiak-ek, gaur emango du aurtengorako antolatu duen guztiaren berri, hilak 17, Okendo plazan, 18:00etan.

TXINTXARRI-k, noski, festen jarraipen berezi eta zabala egingo du, paperean zein sarean. Hilaren 24an festen aurreko zenbaki berezia argitaratuko du, 32 orrikoa, eta bertan jasoko ditu xehe-xehe egitarau ofiziala eta Sorgin Jaiak-ek prestatu duena. Horrez gain, www.txintxarri.eus atari digitalean kontsulta

daitekeen kanal berezi bat sortu du, iristear diren San Pedro Jaiak buruzko albiste, erreportaje, elkarrizketa, argazki eta bideoak jasotzeko, eta baita agendan apuntatzekoak diren hitzorduak ere. Hau da esteka: <https://txintxarri.eus/bereziak/san-pedro-jaiak-2022>.

Berrikuntza ugari

Eskuorria eskuetan, Alonsok berak aletu ditu aurtengo jaietako jarduera batzuk, eta nabarmendu "berrikuntza ugari" ekarriko dituztela. Horien artean, herriko gazteentzat espazio bat sortu izana, Oriarte Landaberri institutuko estalkian. Egunero-egunero

kontzertuak, disko festak eta DJen zuzeneko emanaldiak izango dituzte.

Aurrez prentsari aurkeztutako Dial al sol musika jaialdia eta Freestyle Motocross taldeko gidari Maikel Melero eta Francisco Costelak emango duten akrobazia ikuskizuna aipatu ditu Alonsok: hilaren 29an eta uztailearen leian izango dira, hurrenez hurren, Andatza plazan. Kale ikuskizunak ere izan ditu hizpide, zehazki, Artistas del Gremio txaranga (behin baino gehiagotan etorri izan dira herrira), Mariachi Imperial Elegancia Mexicana, Zo-Zongo! batukada taldearen Psychoclownd ikuskizuna eta Iturendik (Nafarroa) herrira aurrenekoz etorriko diren ttuntturroak.

Zea Mays, Skakeitan, Modus Operandi, El Drogas...eta baita musikari lasarteoriatarak ere. Aurtun Kinada, Louh eta Ibai Berriak taldeek emango dituzte kontzertuak. Ttirriki Ttarraka eskola eta Dinbi Banda batukada taldeak (10 urte bete dituzte aurtun) ere girotuko dute herrira. Kiroletan, Alonsok jakinarazi du pilotari profesionalen partida bat antolatu dutela: Arteaga II herritarra eta Eskiroz, Alberdi II eta Elizegiren aurka. Loidibarren pilotalekuan neurtuko dituzte indarrak, hilaren 30ean, 19:00etan. Sarrera doakoa izango da.

Omendua, Nagusilan

Sanpedroetan, ohi bezala, elkarte bat omenduko du Lasarte-Oriako Udalak. Herritarren proposamenak jasotzeko parte hartze prozesu bat egin, eta hautagai ugariaren aurtean aukeratu behar izan dutela esan du Festak saileko zinegotziak.

"Proposatutak izan diren guztiek merezi dute aitortza, baina erabaki dugu Nagusilan Adin Nagusikoen Giza Boluntariotza taldearen lana nabarmentzea: 25 urte daramatza bolondres talde batek gure herriko adineko pertsonekin lanean".

Udalak 187.789 euro bideratu ditu aurtengo sanpedroak antolatzera. Erdia baino zertxobait gehiago (%53) musika taldeak kontratatzeko erabili dute. "Uste dut egitarau ederra prestatu dugula; bi urte eta gero, behar dugu horrelako ospakizun bat", aipatu du Alonsok.

Aurrekariak, sua pizteko

Herritarrek gogo biziz daude zaindariaren jaiak ospatzeko, eta itxaronaldia atseginagoa izan dadin, festen aurrekari izango diren ekimen ugari gozatuko dute (15. orrian kontsulta ditzakezue guztiak, *Agenda* atalean). Horieta zaindariaren berriak izango direla aurreratu du Alonsok: Emakumeen Zentroak hilaren 25ean Okendo plazan egingo duen zumba maratokia, 10:00etatik aurrera; eta Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak hurrengo egunean aurrera eramango duen Familien I. Mendi Ibilaldia. Antonio Mercero gune alboko arkupeetatik irten, eta Andatzara joan-etorria egingo dute, 12,5 kilometrokoa. Izen emateak kirol talde horren webgunean egin daitezke: www.lasarteoriatrail.com.

GAZTEENTZAT GUNE BAT SORTUKO DU UDALAK, ORIARTE LANDABERRI INSTITUTUAN

EPA LASARTE HHI

2022-2023 ikasturtea

INTERESATUAK DEITU EKAINAREN 22TIK AURRERA

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBH-ko titulua ziklo ertaina eta gorena egiteko, 4 hilabeteko ikastaroak)**
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Tel. 943-37 64 43 / 943-36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarre.eus

Deitu hitzordua eskatzeko!
ekainaren 22tik aurrera

